

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Natura Ondarearen Zerbitzuak, biodibertsitatea zaintzeko zeregina duenez, arreta berezia jartzen die fauna eta flora espezieei, bereziki, mehatxatuei. Horrez gain, zerbitzu hau arduratzen da babestutako biotopoak, Natura 2000 Sareko babes bereziko zonak eta nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezeguneak kudeatzeaz, eta habitat naturalak zaintzeaz, egokitzeaz eta lehengoratzeez, Euskal Autonomia Erkidegoko Baterako Erakundeek beren gain hartutako eskumenen ondorioz.

Natur habitatak eta basa flora eta fauna kontserbatzeko 92/43/EEE Zuzentaraua eta Hegazti basatiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE zuzentaraua aplikatu eta haien jarraipena egitea da zerbitzu honen beste lan ildo lehentasuneko bat.

Hala, hori delarik esparrua, Arabako Foru Aldundiaren egitekoa da espezie mehatxatu, zaugarri edo galzorian daudenak zaintzeko jarduera eta kudeatze planak abian jartzea eta horien jarraipena egitea, eta kasu egitea, orobat, kalte fisikoren bat pairatu duten animaliak osatu eta berriz ere naturan sartzeko, Martiodako Suspergiaren bitartez.

Zerbitzu honek betetzen duen beste zeregin bat da gure natur ondareko landaretza eta faunaren aberastasuna zabaltzea, hitzaldi, argitalpen, ibilaldi eta bisita gidatuen bitartez.

Arreta berezia eskatzen dute parke naturalek. Izan ere, parke naturalak izan baitaitezke, bertan dauden izadi eta historia balioengatik, ondo kontserbatutako naturaren adierazgarririk argiena. Haietan ekintzak kudeatzea eta gauzatzea da Parke Naturalen Programaren funtsa.

Parke naturaletan dauden baliabideak zaintzea eta, horrekin batera, oinarrizko prozesu ekologikoen lorpena eta haien paisaien mantentzea dira formula

I. MEMORIA

El Servicio de Patrimonio Natural procura, en su faceta de conservación de la biodiversidad, la atención a las especies de fauna y flora, preferentemente a las amenazadas, la gestión de los Biotopos Protegidos, Zonas de Especial Conservación de la Red Natura 2000 y Humedales Ramsar de Importancia Internacional, así como al cuidado, acondicionamiento y restauración de los hábitats naturales, como función derivada de las atribuciones asumidas por las Instituciones Comunes del País Vasco.

La aplicación y seguimiento de las Directivas 92/43/CEE de Conservación de los Hábitats Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres y la 2009/147/CE relativa a la Conservación de las Aves Silvestres es otra de las líneas preferentes de trabajo del Servicio.

En este contexto, la puesta en marcha y seguimiento de planes de actuación y gestión de especies amenazadas, vulnerables o en peligro de extinción forma parte de los cometidos que realiza la Diputación Foral de Alava, atendiendo también al restablecimiento y reintroducción en la Naturaleza de los componentes de la fauna que han sufrido percance físico, a través del Centro de Recuperación de la Fauna Silvestre de Mártioda.

La divulgación de la riqueza florística y faunística de nuestro patrimonio natural es una importante labor difusora realizada por el mismo Servicio, por medio de conferencias, publicaciones, itinerarios y recorridos guiados.

Especial atención merecen los Parques Naturales. Por los valores naturales e históricos acumulados en los mismos, pueden representar el ejemplo más evidente de Naturaleza en estado de buena conservación. La gestión y ejecución de actuaciones en los mismos constituyen la base del Programa anual de Parques Naturales.

La conjunción de la conservación de los recursos existentes en los Parques Naturales, la consecución de los procesos ecológicos básicos y el mantenimiento de

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 66 NATURA ONDAREA

egokiena gure ingurumenaren garapen iraunkor eta integratua osorik bermatzeko, parke naturalen figuraren bitartez.

Izadiarenak eta giza lorratzak parke natural batean biltzea gaur egun sakon sustraiturik dago gizartean; horrek, batetik, jendea erakarri egiten du eta natura baliabideak gero eta gehiago errespetatzeko eta haien ikusmiran gozatzeko bidean jar dezake; bestetik, errentak bertaratzea eta zerbitzuen sektorea indartzea ere ekar dezake hiriguneetatik nahiko aparte dauden eta enpleguak sortzeko muga handiak dituzten lekuetara.

Parke naturalen kudeaketak saiatu behar du haietako bakoitzerako babes neurri espezifikoak bateragarri egiten bertako beste jarduerekin: ustiatze jarduerak (basogintza, nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta arrantza) eta aisialdi eta atseden jarduerak, babestutako eremu naturaletan bizi den landa populazioaren bizitza kalitatea hobetuz.

Kudeaketa hori Natura Ondarearen Zerbitzuak egiten du. Zerbitzu horrek biltzen ditu onura publikoko mendien eta haien barruan diren lur pribatuen ekarpen estrukturala; lehenengoen Arabako parke naturalen lurraldearen funtsezko zatia osatzen dute.

Programaren helburua parke naturaletan eta bertako ekosistemen prozesu eta dinamiken iraupenean oinarritzen da, betiere, herritar guztiek balio horiek goza ditzaten lagunduz eta, aldi berean, landa garapena bultzatuz.

Oso-osorik Araban kokatuta dauden bi parke naturalen (Valderejo eta Izki) kudeaketa zuzena Arabako Foru Aldundiak egiten du, eta Gorbeia-koarena ere bai, baina azken horrena Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoarekin. Urkiolako parke naturalaren kasuan, egoera kontrako da. Aizkorri-Arazko Parke Naturalaren zuzendaritza Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, lurralde horretakoa baita parkearen barruan dagoen eremuaren % 80, eta Arabak agiri egokietan itundutako proportzioan parte hartzen du.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

su paisaje es la fórmula idónea para garantizar plenamente el desarrollo integrado y sostenible de nuestro Medio Ambiente, a través de la figura de los Parques Naturales.

Esa impronta de Naturaleza y huella humana sumadas en los Parques Naturales tiene un gran calado en la sociedad actual y produce una atracción hacia ellos que debe redundar en un conocimiento y respeto creciente de los recursos naturales y en el disfrute de su contemplación, al tiempo que produce un flujo de rentas y potenciación del sector servicios en zonas relativamente alejadas y de población con posibilidades de empleo limitadas.

La gestión de los Parques Naturales trata de compatibilizar las medidas protectoras específicas para cada uno de ellos con el desarrollo de las actividades sectoriales (forestales, agrícolas, ganaderas, cinegéticas y piscícolas), de ocio y esparcimiento, incrementando la calidad de vida de la población rural que habita en ellos.

Dicha gestión se realiza desde el Servicio de Patrimonio Natural, que aglutina la aportación estructural de los montes de utilidad pública, que constituyen el núcleo esencial del territorio de los Parques Naturales de Álava, así como de los predios particulares englobados en los mismos.

El objetivo del programa se centra en los Parques Naturales y la preservación de los procesos y dinámicas de sus ecosistemas, sirviendo al disfrute de sus valores por parte de todos los ciudadanos y promoviendo, a la par, el desarrollo rural.

La gestión directa de los dos Parques Naturales enclavados íntegramente en Álava, Valderejo e Izki, se lleva desde la Diputación Foral de Álava, así como el correspondiente a Gorbeia, con participación económica de la Diputación Foral de Bizkaia. En el caso del Parque Natural de Urkiola la situación es inversa. En el Parque Natural Aizkorri-Aratz la Dirección del Parque corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, territorio al que corresponde el 80% de la superficie comprendida en el parque, participando Álava en la proporción convenida en los documentos oportunos.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

Ondoren, Natura Ondarearen Programa honen helburuen gauzatzeko maila azalduko dugu, programan aurreikusitako argitan:

1. Espezieen biodibertsitatearen baliabideak mantendu eta babestea.

Aurreratu egin da habitat bereziak zaintzeko lanetan eta hezeguneetako eta ibai korridoreetako biodibertsitatearen gaineko zenbait azterlanetan.

Mehatxatutako espezieen kudeaketa planen gaineko txostenak idatzi ziren, bai eta lurralde antolamenduko zenbait jardun gauzatu ere, espezieen eta intereseko lekuen habitatari erasaten zioten heinean.

2016. urtean hainbat fauna espezie hartu eta zaindu dira Martiodako Suspertegiko instalazioetan, lehenengoz gaindituta 700 sarrera; horrez gain, ikerketa zientifikoei laguntzeko eta haiek zabaltzeko lanak egin dira.

Era berean, espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko ekintzak gauzatu dira, hala nola amerikar bisoia, Asiako liztorra (350 habia baino gehiago kendu dira), zebra muskuilua, Floridako apoarmatuak, bai eta flora kontrolatzekoak ere (Pampako luma-mottoa).

2. Fauna eta florako espezieen eta sistema naturalen azterlana, ezagutza eta zabaltzea.

Hainbat azterlan egiteari jarraitu zaio mehatxatutako animalia eta landare espezieen inbentarioak egiteko eta haien kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko. Alde horretatik, aipatzekoa da harrapari-komunitateen inbentarioak prestatzeko lurraldeko hainbat gunetan egindako lanen jarraipena, eta, horiez gainera, anfibioak eta haien ugalketa eremuak eta mirotz, sai arre, arrano beltz, hontz handi, sai zuri eta apoarmatuen populazioak aztertzeko lanak, eta orobat uhalde-enera, Bonelli arranoa, europar bisoia eta igaraba zaindu eta kontrolatzeko ekintzak, espezie horietarako onartutako kudeaketa planen eremuaren barruan. Azterlanak, inbentarioak eta haien habitata eta populazio egoerak kontrolatzeko eta zaintzeko hainbat ekintza gauzatu dira.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

Exponemos a continuación el grado de cumplimiento de los objetivos de este Programa de Patrimonio Natural, en función de los previstos en el mismo:

1. Mantenimiento y protección de los recursos de la biodiversidad de las especies.

Se ha continuado desarrollando las líneas de trabajo relativas al seguimiento de los hábitats singulares y varios estudios sobre la biodiversidad de Humedales y Corredores Fluviales

Se redactaron informes sobre planes de gestión de especies amenazadas y actuaciones de planificación territorial en relación con su afección al hábitat de las especies y lugares de interés.

En las instalaciones del Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Martioda se han producido ingresos de especies faunísticas que han sido atendidos a lo largo de 2016, habiendo superado por primera vez la cifra de 700 ingresos. También se han efectuado labores de divulgación y apoyo a investigaciones científicas.

Se han desarrollado asimismo acciones de control sobre especies exóticas invasoras, en concreto sobre el visón americano, avispa asiática (más de 350 nidos retirados), mejillón cebra, galápagos de Florida y flora (Plumero de la Pampa).

2. Estudio, conocimiento y divulgación de las especies de fauna y flora y los sistemas naturales.

Se ha continuado con diversos estudios para inventariación y seguimiento del estado de conservación de las especies de fauna y flora amenazadas. Destacar a este respecto la continuidad en los trabajos de inventariación de las comunidades de rapaces realizadas en diversas áreas de nuestro territorio, los estudios de las poblaciones de Anfibios y sus áreas reproductivas, Aguiluchos, Buitre Leonado, Águila Real, Búho Real, Alimoche y galápagos, así como las actuaciones de seguimiento y control de las especies de Aviión Zapador, Águila Perdicera, Visón Europeo y Nutria, en el marco de los Planes de Gestión aprobados para dichas especies. Se han realizado estudios, inventarios y acciones diversas para control y seguimiento de sus hábitats y estado

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

Halaber, nabarmendu behar dira lan-eremu horretan otsoaren espeziea aztertu eta jarraipena egiteko zaintzak egindako ekintzak.

Gainera, Ingurumen eta Hirigintza Sailak, Bonelli arranoa eta europar bisoia kontserbatzeko europar LIFE proiektu bien baitan, dihardu jarraipen ekintzak egiten, haien populazioa areagotu eta mehatxuak ezabatzen, eta zabalkunde lanak egiten beste administrazio publiko batzuetako bazkideekin batera.

3. Ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea eta babestea.

Gatz Haranaren ingurumena kontserbatzen elkarlanari jarraitzen zaio, gatz meategietako jarduera eta arkitektura oneratzeko lanekiko koordinazioan.

Natura 2000 Sareko espazioen arloan (KBE eta BBE), amaiera eman zaie espazio horiek deklaratzeko prozesuei, Araban parke natural ez diren espazio guztien artezpiden eta kudeaketa neurrien dokumentuak onartuta. Gainera, espazio horien babes eta zaintzan, baimen eta baldintza txostenak egin dira, 2016an dagoeneko egin diren edo babespeko espazio natural horiei eragin diezaieketen proiektu eta jarduketan.

Ingurumena leheneratzeko beste jardun batzuk ibai korridoreetan egin dira, hala nola La Muera ibaian, hain zuzen ere, Gesaltza Añanako Gatz Haranaren Ramsar hezegune nazioarteko garrantzidunetik igarotzen den lekuan, bai eta lhuda, Zadorra eta Ebro ibaietako KBE-en ertzetan ere.

4. Parke naturalak

1. Parke naturalak zaintzea eta berpiztea, haien balio handienak mantentzeko jardueren bitartez eta herritar guztiei, eta bereziki landa eremuetako populazioari, onurak ekarriko dizkieten azpiegituz eta zerbitzuez hornituz.

Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen parke

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

de sus poblaciones.

Destacar también en este área de trabajo las actuaciones de estudio y seguimiento de la especie lobo efectuada por la guardería.

Además el Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo en el marco de los dos proyectos LIFE europeos de conservación del Águila de Bonelli y del Visón europeo se desarrollan acciones de seguimiento, refuerzo poblacional, eliminación de amenazas y divulgación con los otros socios de administraciones públicas.

3. Mejora y protección de la calidad ambiental y del paisaje.

Se continua la colaboración en la conservación ambiental del Valle Salado en coordinación con la recuperación de la actividad y arquitectura salinera.

En el ámbito de espacios Red Natura 2000 (ZEC y ZEPA), se han finalizado los procesos de declaración de dichos espacios con la aprobación de los documentos de Directrices y Medidas de Gestión de todos los espacios que no son parques naturales en Álava. Además en materia de protección y prevención de estos espacios, se han emitido informes de autorización y condicionado en proyectos y actuaciones que se han efectuado o pudieran afectar a estos espacios naturales protegidos, a lo largo de 2016.

Otras actuaciones de restauración ambiental han sido llevadas a cabo en corredores fluviales, concretamente en el río La Muera, a su paso por el Humedal Ramsar de Importancia Internacional del Valle Salado de Salinas de Añana, así como en las riberas de las ZEC de los ríos Ayuda, Zadorra y Ebro.

4. Parques Naturales

1. Protección y revitalización de los Parques Naturales mediante actuaciones de mantenimiento de sus valores más notables y dotación de infraestructuras y servicios en beneficio de la ciudadanía en general y del medio rural en particular.

Los Parques Naturales de Álava gestionados desde

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

naturalak (Valderejo, Gorbeia eta Izki) Natura Baliabideak Antolatzeko Planak (NBAP) eta Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planek (EKAP) arautzen dituzte.

Valderejo eta Izki parkeetako patronatuen arauzko bilerak egin dira, eta horietan onartu dira onartu beharreko jardueren memoriak eta urteko aurrekontuak. Aldi berean, parkeetan eta euren kudeaketan eragina duten hainbat gai jorratu dira, patronatuetakoa kideek intereseko jo dituztenean.

Parkeetan hainbat jarduera planifikatu dira, eta hainbat azpiegitura eta instalazio eraiki dira, sektore, prestakuntza, aisialdi eta denbora libreko erabilerak antolatzeko tresna gisa. Parkeetako zuzendaritzak eta zaintzaileek arreta bereziz begiratzen dituzte erabilera horiek. Nabarmentzekoak dira aisialdiko guneak eta bidezidor sareak mantendu eta hobetzeko jarduerak, horiek baitira bisitariek gehien erabiltzen dituztenak. Maila bereko garrantzia dute nekazariak eta abeltzainek gehien erabiltzen dituzten azpiegiturak, batez ere pista eta bideak, hobetzeko lanek.

2. Parke Naturalen balioen berri ematea, bizilagunek errespetatu dituzten eta haietaz gozatu dezaten, gizartearen estamentu guztiak xede duten ingurumen-hezkuntzako jarduerak bideratuta.

Zuzenean edo zeharka, Foru Aldundiak berak edo beste erakunde batzuekiko hitzarmenen bitartez, parke naturalen sustapena egiten du, gizartearen izadiko aukera gisa, ikaskuntza, dibertimendu eta aisialdirako. Arreta handiena ematen zaie beren adinagatik ingurumenaren (eta bereziki parke naturalen) berezko balio etiko eta estetikoetan hezteko erraztasuna dutenei. Sustapenak arlo asko ditu, besteak beste, hitzaldi eta jardunaldiak, askotariko ekitaldiak, parke naturalek gordetzen dituzten natura, kultura eta paisaia balioez gozatzeko aukera ematen duten hainbat material egin, argitaratu eta zabaltzea. Horien artean nabarmentzekoa da 2016an aurrera jarraitu duela La Caixa Fundazioarekin urtero sinatutako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

la Diputación Foral, Valderejo, Gorbeia e Izki, se regulan por sus respectivos Planes de Ordenación de Recursos Naturales (PORN) y sus Planes Rectores de Uso y Gestión (PRUG).

Se han producido las reuniones reglamentarias de los Patronatos de los parques de Valderejo e Izki en las que se ha procedido a la preceptiva aprobación de las memorias de actuaciones y de los presupuestos anuales. Se han tratado asimismo todas aquellas cuestiones con incidencia en los parques y su gestión que los componentes de los Patronatos han considerado de interés.

Se han planificado diversas actividades y construido infraestructuras e instalaciones en los parques, como instrumentos de ordenamiento de usos sectoriales, formativos, recreativos y de ocio, que los responsables de la dirección y conservación de los parques atienden con particular atención. Adquieren especial relevancia aquellas que afectan al mantenimiento y mejora de las áreas recreativas y la red de sendas por ser las que más demanda presentan por parte de los visitantes. Igualmente importantes son las destinadas a la mejora de las infraestructuras de mayor utilización por agricultores y ganaderos, principalmente pistas y caminos.

2. Divulgación de los valores de los Parques Naturales encaminada a su disfrute por la población y hacia su respeto por la misma, potenciando actuaciones de educación ambiental dirigida a diferentes estamentos de la sociedad.

La promoción de los Parques Naturales, tanto directa como indirectamente, se realiza por la Diputación Foral o a través de Convenios con otras Instituciones, como opción de aprendizaje, diversión y ocio en la Naturaleza para la sociedad, dedicando atención preferente a las personas que por edad son proclives a formarse en los valores éticos y estéticos inherentes a nuestro entorno y especialmente a los Parques Naturales. La promoción alcanza múltiples facetas, desde jornadas de conferencias y celebraciones diversas hasta la preparación, publicación y difusión de material didáctico y divulgativo que propicie el conocimiento y disfrute de los valores naturales, culturales y paisajísticos incluidos en los Parques

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA
Programa: 66 NATURA ONDAREA

hitzarmenak (Arabako Parke Naturalei buruzko atal bat dauka). Aipagarria da 2015ean egin den apustu handia natura edo kultura dinamizazioko jardueri dagokienez, hiru parkeek batera koordinaturiko programen bidez. Izan ere, etengabeko eskaintzak prestatu dituzte hainbat hilabetetan, bisitariak eta babestutako natur guneetatik gertuko herrietako biztanleek ongi pasatzeko.

Parke naturalen berezko helburua da interpretazio eta ikaskuntza edukiez hornitzea eta horiek etengabe mantentzea, eta horrek, parke naturalei, balio esplizitu horiengatik guztiengatik nabarmenarazten dituen izaera didaktikoa ematen die. Hain zuzen, balio horiek, interpretaziorik gabe, inplizitu soilik geratuko lirakeke, eta, askotan, lausoturik natura ezezagun eta ezezagun izateagatik behar bezala estimatzen ez den batean. Interpretazio erakusketa iraunkorrak biribiltzeko, erakusketa ibiltarietarako gunea prestatu zen, bisitariak parkeetako naturari buruzko beste heziketa alderdi batzuk erakusteko. Gorbeia, Valderejo eta Izki gaur egun area zehatza daukate ekimen horiei bideratuta.

Bertako eraginpeko herriguneetan ere hainbat gelatan egin dira. 2016an, erabileren mugapenen kalte ordainak eman dira, bai Untzaga eta Baranbioko erreserba integralei dagozkienak, bai Gorbeia parke naturalari dagozkionak, Markinezen eta Kintanan Izki dagozkionak, bai eta Valderejon Lalastrari dagozkionak ere.

5. Proiektuak europar funtsekin

Nabarmendu beharra dago Caicedo-Yusoko aintziraren inguruko habitatak bereoneratu eta hobetzeko egin diren jarduerak; izan ere, nazioarteko garrantzia duten Ramsar hezegunea eta Natura 2000 Sareko babes bereziko zona baita, Europar Batasunak finantzatzeko Life "Tremedal" proiektuko Post LIFE aldiaren, hain zuzen, aparkaleku lurzattia amaitzea aintzirako ermita ondoan, Lacus herri hustuko auri arkeologikoak

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE
Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

Naturales, habiendo destacado en 2016 la continuación de un convenio anual con la Fundación "La Caixa", con un apartado específico dedicado a los Parques Naturales de Álava. Cabe destacar la gran apuesta que se ha realizado en 2015 en cuanto a actividades de dinamización natural/cultural, con programas coordinados entre los tres Parques que aglutinan ofertas continuadas durante varios meses para el disfrute de visitantes y habitantes de los pueblos cercanos a los espacios naturales protegidos.

La dotación y mantenimiento continuado de contenidos interpretativos y formativos del conocimiento en los Parques Naturales son objetivos característicos de los mismos, otorgando a éstos el carácter didáctico que les hace destacar y notar por todos esos valores explícitos que, sin su interpretación, quedarían meramente implícitos y muchas veces difusos en una Naturaleza desconocida y por ello no valorada en su justa medida. Para completar las exposiciones interpretativas permanentes, se dotó de un espacio para exposiciones itinerantes para comunicar a los visitantes otros aspectos educativos relacionados con la propia naturaleza de los Parques. Gorbeia, Valderejo e Izki tienen actualmente un área concreta dedicada a estas iniciativas.

También se desarrollan en diferentes salas en los núcleos urbanos de su área de influencia. Se han indemnizado económicamente las limitaciones de usos en 2016 correspondientes a las dos Reservas Integrales de Unzá/Untzaga y Baranbio, en el Parque Natural de Gorbeia, la correspondiente de Izki, en las pertenencias de Marquínez y Quintana, así como en Valderejo la correspondiente a Lalastra.

5. Proyectos con Fondos Europeos

Han de destacarse las actuaciones desarrolladas para restauración y mejora de hábitats en el entorno del Lago de Caicedo-Yuso, Humedal Ramsar de Importancia Internacional y Zona Especial de Conservación ZEC de la Red Natura 2000, en el periodo Post LIFE del Proyecto Life "Tremedal" que fue financiado por la Unión Europea, terminando la parcela de aparcamiento junto a la ermita del Lago, poniendo en valor las

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

balioetsi eta iturri gazitik hurbil dagoen lursailaren zatia erostea, hain sentikor den gune hura birgaitu eta babesteko.

Amerikar bisoia murrizteko jarduerak ere egin dira LIFE Lutreola proiektuaren baitan, eta harrapakin asko lortu dute tranpa metodo berrien bidez eta kaiolak egin dituzte bisoiak hazteko.

Zerbitzuak jarraitzen du LIFE Bonelli proiektuaren baitan garatutako jarduerak egiten —askatu dira arrano oilo bi—, eta habitata egokitzen populazioen elikadura hobetu eta linea elektrikoetan elektrokuzioen aurrean babesten.

Aipamen berezia merezi du «Izkiko ameztiaren eta harekiko harremanean dauden Europar Batasunaren intereseko habitat eta espezieen ekosistema-kudeaketaren» POSTLIFE+PRO-Izki proiektuaren garapenak ere. Guztira, lau urte iraungo du, eta, kostua, orotara, 1.112.695 eurokoa izango du, Europar Batasunak eta Arabako Foru Aldundiak elkarrekin finantzaturik % 50ean; xedea du Izkiko ameztia eta ekosistema horrekiko elkar eraginean dauden Europar Batasunaren intereseko habitat eta espezieak leheneratu eta kontserbatzea.

2016an, behin bukatuta ofizialki proiektua, POSTLIFE+ PRO-Izki proiektuko jarduerari ekin zaie, jatorrizko proiektuan finkatutako helburuak epe luzean lortzeko direnak.

Kontserbazio ekintza zehatzak izan dira:

- Hariztian jarritako saguzarrentzako 125 kutxa-babeslekuak aztertzea; 2016an, % 44ko okupazioa izan zuten.
- Neguan eta udan aztertzea baso-igel jauzkarien errunaldiak eraikitako 5 urmaeletan; % 60ko okupazioa izan zuten.
- Mantentze lanak *Rhynchospora fusca*-ren material begetatiboa duen germoplasta bankuan; 8.000 hazi ditu kontserbatuta.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

ruinas arqueológicas del despoblado de Lacus y la compra de una porción de la parcela próxima al manatial salino para su restauración y protección de dicho enclave tan sensible.

También se han llevado actuaciones de descaste de visión americano en el marco del Proyecto LIFE Lutreola, consiguiendo gran éxito de capturas con nuevos métodos de trampa, así como la construcción de jaulones para cría de visión.

El Servicio continúa también con las actuaciones desarrolladas en el marco del proyecto LIFE Bonelli, habiéndose liberado dos pollos de águila, y acondicionando el hábitat para mejorar la alimentación de las poblaciones y su protección frente a electrocuciones en líneas eléctricas..

Mención especial merece el desarrollo del proyecto POSTLIFE+ PRO-Izki «Gestión ecosistémica del marojal de Izki y de los hábitats y especies de interés comunitario con los que se relaciona». Con una duración total de cuatro años y un coste total de 1.112.695 €, cofinanciados por la Unión Europea y la Diputación Foral de Álava al 50%, persigue la restauración y conservación, a largo plazo, del marojal de Izki y los hábitats y especies de interés comunitario que interactúan en este ecosistema.

En el año 2016, concluido oficialmente el proyecto se ha procedido a realizar las actuaciones relativas al POSTLIFE+ PRO-Izki, destinadas a alcanzar a largo plazo los objetivos establecidos en el proyecto original:

Acciones concretas de conservación han sido:

- Revisión de las 125 cajas-refugio para murciélagos colocadas en el robledal, que en 2016 tuvieron una ocupación del 44%.
- Revisión invernal y primaveral de las puestas de rana ágil en las 5 balsas construidas, con una ocupación del 60%.
- Mantenimiento del banco de germoplasma con material vegetativo de *Rhynchospora fusca*, que alcanza las 8000 semillas conservadas.

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 60 INGURUMENA

Programa: 66 NATURA ONDAREA

- Populazioa indartzeko programan sartutako landareen jarraipena egitea. 2016ko emaitzak oso onak dira, landareen % 99k biziraun baitute eta lehenengoz ikusi baita loratzea eta hazi asko produzitu dela.
- Jarraipeneko 8 lurzatieen jarraipena egitea, abeltzaintza presioak gune higroturbosoetan duen eragina neurtzeko. 2016ko emaitzek jada neurri zuzentzaileak proposatzen dituzte paduretan, kudeaketa jarraibideak finkatzen lagunduko dutenak alderatutako ikuspuntu teknikitik.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 60 MEDIO AMBIENTE

Programa: 66 PATRIMONIO NATURAL

- Seguimiento de las plantas introducidas en el programa de reforzamiento poblacional. Los resultados de 2016 son muy satisfactorios, con una tasa de supervivencia del 99% de las plantas y por primera vez se detecta floración y una notable producción de semillas.
- Seguimiento de las 8 parcelas de seguimiento para evaluar el efecto de la presión ganadera sobre los enclaves higroturbosos. Los resultados obtenidos en 2016 ya proponen medidas correctoras en los trampales que permitirán establecer pautas de gestión desde un punto de vista técnico contrastado.